

ERABAKIA 2019KO OTSAILAREN 1ekoa UPV/EHUko GERENTERARENA, LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO. LAN POLTSA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA (GESTIO OROKORRA)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauk agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzeko tresna 2017ko uztailaren 18ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2018ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.),

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaldu beharko ditu lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da A titulazio taldeko pertsonak hautatzea Gestioiko Teknikarien eskalan (Gestio orokorra) sor litezkeen premiak betetzeko, Betebeharreko titulazioa: Doktorea, lizentziatua/graduatu, goi-mailako arkitektoa edo goi-mailako ingeniaria.

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU:

Lehen artikulua.-Deialdia egitea Gestioiko Teknikarien eskala (Gestio orokorra), lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesurako, erabaki honen I. eranskinetan jasotako oinarrien arabera.

Lan poltsa honen bidez beteko diren aldi baterako eginkizunak eta lanpostuak A titulazio taldeko Gestioiko Teknikarien eskalakoak (Gestio Orokorra) izango dira.

Prozesu honetan hautatutako pertsonen zerbitzuak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren kontra aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez dakioke Gerenteari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa, jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko

epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe biak.

Leioa, 2019ko otsailaren 1a

